

Bi milioigarren bisita "Obretan eta irekita" ekimenera

Santa Maria Katedraleko "Obretan eta irekita" programak "bi milioigarren" bisitaria lortu du uda honetan. Esmeralda Motos albacetearrak jaso zuen bisita-programa aitzindari eta berritzaile honen erakargarritasun turistikoa eta dibulgatzailea nabarmentzen duen sari sinboliko hori.

Santa Maria Katedrala Fundazioaren sarreraren erregistroen arabera, joan den uztailaren 28an "Obretan eta irekita" programak "bi milioigarren" pertsona jaso zuen. Alba Picazo alabarekin etorri zen Esmeralda Motos albacetearrak ezusteko atsegina jaso zuen Katedralaren eta Dorrearen bisita gidaturako sarrerak erostera zihoanean. "Zu ikustera etortzeko ametsetan hainbeste urte eman ondoren, a zer nolako saria eman didazun!" izan dira Bisita Zentroko mostradorearen albistearen berri izan duenean, sarituak esandako hitz espontaneoak.



Santa Maria Katedrala Fundazioak Katedralako Arkupearen erreproduzio bat eman

zuen ama-alabei, "zifra hori lortzen lagundu duten pertsona guztiei sinbolikoki zabaltzen

diegun oroigarri gisa", eta bisita doan egiteko gonbita egin zitzaion.

Gazte rockak eta hizkuntza gutxituek animatu dute uda Aterpetxean

Katedraleko Aterpetxeak indartu egin du uda honetan Gasteizko topagune eta kultur dinamizazio gune gisa duen lekua, bi ekimen nabarmenetan parte hartu duten hainbat talde hartu baititu. Alde batetik, Arabako Foru Aldundiak antolatuta uztaileko 12 egunetan Aitzogile kaleko instalazioak musikaz eta giro bikainez bete dituzten GazteRock udalekuak. Bestalde, HIGAREN hizkuntza gutxituen hiztun gazteen topaketaren, IV. edizioan munduko hainbat lekutako 75 lagun bildu ziren Arabako hiriburuan, 65 hizkuntzei buruzko esperientziak eta berpiztea sustatzeko formulak partekatzeko.



“Kontzertuan eta Irekita” eta “Zinema Elizpean” ekimenen arrakasta

Uztaileko azken bi asteburuetan egin zen “Kontzertuan eta Irekita 2023” deialdiak ehunka musikazale bildu zituen. Santa Mariako Atarian gospel musika dardartiaz, gure garaiari egokitutako sehaska kantua tradizionalez, Federico García Lorcaren jeinuaz edo Caco Senantek Pablo Milanesi egindako omenaldiaz gozatu ahal izan zuten. Kontzertu guztiek jende ugari bildu zuten, ia emanaldi guztietan leku guztiak bete arte.

Bestalde, “Zinema Elizpean” ekimenak Santa Maria plazaren inguruan bildu zituen berriro ere zazpigarren artearen

maitaleak, lau izenburu erakargarriz gozatzeko: Bidean Jarraituz, Regreso al futuro, Padre no hay más que uno 3, eta Top Gun Maverick.



Koloniako Filarmonikoaren Ganbera Orkestraren

Datorren irailaren 21ean, osteguna, 20:30ean, Santa Maria Katedralaren erdiko nabea pribilegiozko eszenatoki bihurtuko da nazioarteko musika-erakunde klasikorik ospetsuenetako baten, Koloniako Filarmonikoaren Ganbera Orkestraren emanaldirako. Kontzertuan, Vivaldi (Lau Urtaroak), Mozart (Divertimentua re maiorrean KV136), Donizetti (Vieni: la mia vendetta) eta Paganini (Capriccioa biolinarako eta orkestrarako) artisten lanak taularatuko dira.

Kontzertu honen prezioak honako hauek dira: 22 euro helduentzat, 19 euro 65 urtetik gorakoentzat eta 14 euro 28 urtetik beherako ikasleentzat. Sarrerak Bisitarien Zentroan jasotzen dira.

Magia itzuli da

Hilaren 11n, 12an eta 13an, Santa Maria Katedraleko elizpeak Michel ilusionista argentinarren “Adimenaren jokoak” hartuko ditu, Gasteizko Nazioarteko Magia Jaialdiaren edizio berriaren barruan. Jaialdiaren arduradunek ekitaldiaren aurkezpenean adierazi zuten bezala, “Adimenaren jokoak” “gaur egun gaztelaniaz ikus daitezkeenetatik “magia ikusizunik onenetakoa da, onena ez bada”. Mentalismoan aditua den Michel magoaren emanaldiak 20:00etan hasiko dira.



Antzinako Musika Asteko kontzertua

Irailaren 9an, larunbata, Santa Maria Katedralak kontzertu berezia hartuko du Arabako Antzinako Musika Astearen barruan. Asturisko “El león de Oro” Abesbatzak interpretatu eta Marco Antonio de Pazek zuzendutako “Cadere ad inferos: El diálogo del alma”. “Cadere ad inferos”-ek bekatu egin duen gizon baten infernura erortzea erakusten du, bere arima betirako kondenatuz. Musika izango da epaia eman behar duena, erredentzioari eta barkamenari atea zabali utziz. 20:30ean hasiko den emanaldira joateko, gonbidapena eskuratu behar da Antzinako Musika Astearen webgunearen bidez [<https://ama-sma.kulturaraba.eus/eu/-/cadere-ad-inferos>].